

Euskal AEko I+G gastua %0,8 gutxitu zen 2012an

I+Gko dedikazio osoko baliokidetzako langileak %3,6 gehitu ziren

2012an, Ikerkuntza zientifiko eta Garapen teknologikoko jardueren gastua %0,8 murriztu zen Euskal AEn, Eustaten **behin-behineko** datuen arabera Halere, I+Gko dedikazio osoko baliokidetzako langileak %3,6 gehitu ziren

I+Gko gastu zifra hauen oinarrian egikaritze-sektoreen jokaera ezberdinak daude:

- Sektorre nagusian, Enpresan, barne-gastua %1,7 murriztu zen eta I+G jardueretarako langileak %0,7 gehitu.
- Goi-mailako irakaskuntzan %0,1 murriztu zen gastua, eta I+G langileak %9,3 gehitu.
- Administrazio publikoan I+G gastua %5,7 hazi zen eta langileak %13,4.

Ohar metodologikoa: Eustatek Datu-aurrerapena dakar, 2012ko I+G gastuen eta langileen bilakaerari buruzkoa. Aintzat hartu dira aurreko urtean gastu guztiaren ia %80 gauzatu zuten enpresa, unibertsitate eta erakundeak. Aurrerapena ekainean, eta behin-betiko datuak aurtengo azaroan.

Informazio gehiago:

[Eustat - Euskal Estatistika-Erakundea / Instituto Vasco de Estadística](#)

[Donostia-San Sebastián, 1 01010 Vitoria-Gasteiz](#)

[Prentsa-zerbitzua: \[servicioprensa@eustat.es\]\(mailto:servicioprensa@eustat.es\)](mailto:servicioprensa@eustat.es) Tfno. 945 01 75 62

[Ikerketa zientifiko eta garapen teknologikoko \(I+G\) jardueri buruzko prentsa-ohar gehiago](#)

[Ikerketa zientifikoko eta garapen teknologikoko jardueri buruzko datu-bankua](#)